



## ARAUTEGIA

### JUDO 2022

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak EUSKADIKO XXXIX. ESKOLARTEKO KIROL JOKOEN ekitaldia antolatuko du, Euskadiko Judo Federazioarekin lankidetzan, 2022ko apirilaren 3an Arriaga Udal Kiroldegian Gasteizen (Araba). Hauxe duzue jokoaren araudia:

#### **A. JOKATZEKO MODUA:**

Kategoriak:

- *Infantilak: 2008-2009an jaiotako neska-mutilak. Araba, Bizkaia, eta Gipuzkoa.*

*Partaide guztien eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu.*

#### **B. SELEKZIOEN OSAERA:**

*Pisu bakoitzeko 4 judoka eta entrenatzaile bana izango dituzte nesken eta mutilen selekzioetan.*

*Lurralde bakoitzak 2 selekzio izango ditu, 1 nesketan eta 1 mutiletan, hau da, lurralde bakoitzak 32 mutilekin eta 32 neskekin parte hartu ahal izango du.*

*Lurralde bakoitzeko txapelduna, txapeldunordea eta hirugarren postuan sailkatutako bi kirolariak bertan izango dira. Ezinbestean joaterik izango ez balute, justifikatu egin beharko lukete bertaratu ezina.*

*Pisu mailaren kirolariak falta direla eta, lurralderen batek 32 mutilen eta 32 nesken postuak betetzerik izango ez balu, ezingo ditu eskola ume gehiago aurkeztu gainerako pisuetan.*

*Aurreko urtean lehen postua lortutako judokak txapelketan parte hartzera gonbidatuko dira, betiere eskola kiroleko infantil mailakoak izaten jarraitzen badute.*

*Gonbidatuak ez dira aintzat hartuko ezarritako kupoa betetzerako orduan, duten pisuan parte hartu ahal izango dute eta lurraldea ordezkatzan duten gainerako judokekin batera izango da izen-ematea. Gonbidapenak izen-abizenekin egingo dira.*

*Pisuak eta kategoriak:*

- Infantil neskek: - 36 -40 -44 -48 -52 -57 -63 eta + 63kg*
- Infantil mutilak: -38 -42 -46 -50 -55 -60 -66 eta + 66kg*



#### **D. ARAU OROKORRAK:**

*Borrokak hiru minutukoak izango dira.*

*Parte hartzeko egiaztatu beharreko gutxienezko maila gerriko berdea da. Txapelketan judogi zuriarekin soilik parte hartu ahal izango da.*

*Euskadiko federazioak epaileak izendatuko ditu, lurralde bakoitzetik lau, eta hauek guztiak epaile zuzendariak koordinatuko ditu.*

*Banakako lehiaketan kanporaketak bigarren aukera gisa edota liga gisa jokatuko dira. Judoka kopuruaren arabera erabakiko da kanporaketa edo liga jokatu.*

*Hiru lehiaketa eremu izango dira.  
Kantxan, tatami bakoitzeko bi teknikari baino ez dira onartuko.*

#### **E. ZOZKETA:**

*Izen emateak Euskadiko Judo Federaziora bidaliko dira 2022ko martxoaren 25a baino lehen.*

*Zozketa txapelketaren egunean pisaketa bukatu ondoren egingo da, ordenagailuko programa baten bidez.*

*Izen emateetan aldaketak egiteko azken eguna martxoak 31a izango da.*

#### **F. PISU HARTZEA:**

*Txapelketa hasi baino lehenagoko orduan egingo da pisu hartzea; lehen ordu laurdenean pisu-hartze estraofiziala eta bigarren ordu-erdian pisu-hartze ofiziala egingo da.*

*Lehenengo pisatzean pisu egokia ematen duen kirolariari ontzat emango zaio pisua.*

*Pisu hartze ofiziala hastean, kirolaria behin bakarrik igoko da balantzara eta bertan ematen duen pisua izango da erabiliko dena.*

*Txapelketan inskribaturik dagoen pisua ematen ez duen kirolaria txapelketatik kanpo geratuko da.*

*Partaideak pisaketa unean dagokien Foru Aldundiko eskola kiroleko txartela aurkeztu beharko dute.*

*Txapelketa ordutegia modu onean eraman ahal izateko, epaileak 9:30etarako txapelketa gunean egon behar dira.*

#### **G. KIROL SARIAK:**

*Ondorengo sariak emango dira:*

*Txapelketaren banakako sailkapena:*

*Domina bana lehenengoari, bigarrenari eta hirugarren sailkatzen diren biei.*



**H. EZBEHARREN AURREAN:**

*Lesio edo ezbeharririk sortu ezkeror nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.*

**I. AZKEN OHARRA:**

*Arautegi honetan azaltzen ez diren kontu guztietarako, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:*

- a) 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b) 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzkoa
- d) Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2022ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2022ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIX. edizioaren deialdia egiteko dena
- e) Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendariak, 2022ko urtarrilaren 16ko EBAZPENA, 2022ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIX. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- f) Judoko eta EK-ko Euskal Federazioaren Arautegian erabakitakoa.

*Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeror, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.*